

Ezarian > Behobia-Donostia lasterketa



Silvia Alba, Enrique Diaz de Mendibil, Javier Dominguez eta Juan Karlos Arregi Donostian, Behobia-Donostia lasterketarako entrenatzen. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Ikusmen urritasuna duten pertsonen gidarien laguntzarekin parte hartzen dute Behobia-Donostia lasterketan. Azaroko lehia buruan, entrenatzen ari dira dagoeneko.

Lagunduta, baina bakarrik

lari Agirre Donostia

Lehendabiziko aldiz entrenatzeko geratu zirenean lanean jai hartu zuen. «Pentsa zenbaterainoko ilusioa izaten duten. Guk baino gehiago ia», dio Silvia Albak Juan Karlos Arregiri begira. Donostiako ONCEko langile soziala da Alba, kirolaria, eta ikusmen urritasuna du. Behobia-Donostia lasterketan parte hartuko du aurten bigarren aldiz. «Ibilbide osoan ahotsez inguratuta joatea izugarria da. Oso erraz egin nuen, denbora gutzian animoak entzuten nituelako». Baina txalo eta oihu horien artean, milaka korrikalariaren erdian lasterka egin ahal izateko, gidari baten babesa izango du Albak.

Juan Karlos Arregi da gidarietako bat. Boluntarioak dira gidari horiek, eta itsuei laguntzen diete korrika egiten duten bitartean. Lagunduta baina, era berean, bakarrik egingo dituzte Behobia eta Donostia arteko urratsak.

Donostiako ONCEko zuzenda-

ri Javier Dominguez ere irtengo da Behobia-Donostia lasterketan. Enrique Diaz de Mendibil izango du gidari Albak, eta Juan Karlos Arregi Dominguezek. Zaildutako korrikalariak izaten dira gehienetan gidariak; kilometro ugari eta lasterketa askotan parte hartuta-koak. Lehen aldia du Diaz de Mendibilek. «Lagun batek proposatu zidan gidari izateko aukera, eta interesgarria iruditu zitzaidan. Proiektu oso polita dela uste dut. Ea elkar laguntzeko aukera dugun», dio. Elkarren alboan, baina eskutik heldu gabe, egingo dute bi bikoteek lasterketa. Bidean aurkitzen dituzten oztopen berri abisatzea izaten da gidariaren egiteko nagusia; zuloak, koskak edo pertsonak non dauden esatea. «Leku estuetatik pasatu behar dugunean, adibidez, euren atzetik jartzen gara», dio Albak. Ikusmen urritasuna duten lagunen eta itsuak direnen arteko aldeaz mintzatu dira. Dominguez eta Albak, esaterako, gutxi baina zerbait ikusten dute. «ONCEko kide garenok gehienez

ikusmen osoaren %10 izaten dugu. Nik nire aitarekin ezkaratean topo egiten badut, beste bizilagun bat izango balitz bezala agurtzen dut askotan», jarraitu du. Erabat itsuak balira, soka batekin gidariari lotuta egingo lukete lasterka, gidariaren mugimenduak nabaritzeko, eta oztopenei aurre hartzeko.

Gidariak eta lagunak

Gidariarekin konfiantza osoa izatea da gakoa. Entrenamenduetan ere batera ibiltzen dira. «Alboan duzun pertsonarengan sinesten baduzu, korrika ari zarela ez zara beste ezertaz kezkatzen», esan du Dominguezek. Zerbait lekutan, hala ere, estropezu egitea ia saihetsezina dela aitortu dute. Ezinbestekoa da gidatu behar duenak baino maila handiagoa izatea gidariak. Lasai ibili behar du erritmoa markatzen. Albak, adibidez, ordubete eta berrogeita bost minutuan amaitu nahi du aurten Behobia-Donostia. «Hauek zenbatean egingo luketen bakarrik? Izerdirik ere ez dute aterako gure-

kin. Konparatu euren bihotz tapadak eta nireak», dio txantxetan bi gidarietara begira.

Arregik, esaterako, 44 maratoni dauzka eginda, eta 20 aldiz parte hartu du Behobia-Donostia lasterketan. Urte askotan *erbia* izan da lasterketan, Fortuna elkartearekin. Lasterketa denbora jakin batean amaitu nahi duten pertsonentzat jartzen dituzten gidariak dira *erbiak*. «Ordubete eta hoge minutuko taldea tokatzen bazait, lasterketa denbora horretan bukatu behar dut, atzean datozen laguntzat ni naizelako erreferentzia». Ezberdina da, edonola ere, ikusmen urritasuna duen norbaitekin ateratzea. Gidariak animatzaile ere izaten dira, neurri handi batean. Hitz eginez joaten dira lasterka egiten duten bitartean. «Oso nekatuta banago, asko laguntzen dit norbait alboan animoak ematen egoteak. Ez daukat Javierrek adinako sufritzeko gaitasunik», nabarmendu du Albak. Lesio batekin dabil Dominguez, erdi herren, baina azaroaren 17rako ongi egotea espero du.

25 urtez gidari izandako Andon Gilasolarekin egin dute topo kalean. Gisasola Dominguezekin makina bat bidaia egindakoa da. Moskun Europako tandem txapelketan izan ziren, eta zeharkaldiko eskiarekin Olinpiar Jokotan ere bai. «Nik ez dut sekula gidaritzat hartu neure burua. Kirola egitera joaten ginen bi lagun ginen. Izugarri ongi pasatu dugu elkarrekin», dio Gisasolak. Korrika ere aritu dira biak. Donostiako San Silvestre lasterketa batekin oroitzen dira. «Aurreko lasterketa batean kolpea hartu zuen nirekin zihoala, eta arantza horrekin nengoen. Berak gogoratu zidan hasi baino lehen mesedez abisatuz joateko. Zulo bat zegoela esan nion, eta ondoren, beste zulo bat eta beste bat. Lasterketa erdia jauzika pasatu zuen Javierrek adarra jotzen ari nintzaiola ohar-tu zen arte», dio barrez.

Entrenatzeko jantzi dituzten txalekoei begiratu die Gisasolak. *Ikusmen ezgaitasuna* jartzen duen atorra horiarekin korrika egiten dute lasterketetan. «Nire-